

## SENAR-EMAZTEAK-II

### *Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra*

Gizona itsasgizona da eta bere emaztea egun osoan dago solotik lanean.

Gizona, egunero, itsasotik itzultitakoan, jatekoa prestatu barik eta etxea atondu barik aurkitzen du. Badoa tabernara eta han dago zurrumurruka. Lagunek horretan ikusi eta ondokoa esaten diote:

- Zer gertatu zaizu?

- Zer gertatu zaidan?, banoa etxera eta jatekoa egin barik eta etxea destartalata –erantzun itsasgizonak.

Eta lagunek esaten diote:

- Ni zure lekuan banengo, zure emaztea manka-manka egingo nuke.

Badator emaztea solotik eta gizona hasten zaio aldarrika eta jotzen. Orduan emazteak esaten dio:

- Oraindino, ni egun osoan soloan beharreen eta etxera natorrenean zuk manka-manka egin!

Hau esaten ari zela, hartzen du sukaldeko ontzi bat eta gizona jotzen du buruan.

Hiruzpalau egun igarota, gizona badoa tabernara buruan txapela batekin eta lagunek galdetzen diote:

- Zer gertatu zaizu, bada?

- Zer gertatu zaidan? Burua ireki egin didala emazteak bera jipoitzeagatik.

### **Anton Erkoreka**

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000